

# Lurraldearen antolamendua eta lurzoruaren erabilerak



Inoiz galdetu al diozu zure buruari zergatik dagoen hor industrialde hori, parke hori zergatik egin ote duten, gune jakin bat zergatik babesten den edota non eta nola eraikitzen den?, nork erabakitzen du toki jakin batean zer egin daitekeen eta zer ez?

Lurraldea gure bizilekua da, gure euskarri fisikoa, eta gure jarduera guztiek eragiten diote, zuzenean edo zeharka. Gauzak non eta nola egiten ditugun erabakigarria izan daiteke, horren arabera zerbait onuragarria edo kaltegarria izan daitekeelako ingurumenarentzat, baita pertsonentzat ere.


Lurraldea antolatzea garrantzitsua da, lurzoru behar bezala erabiltzeko, haren ingurumen-gaitasunetara eta gizarte-premietara egokituta, etorkizuneko belaunaldientzat ondare direla kontuan hartuta eta behar den dirua eskura eduki ahal izateko.



## AGENDA 2030



### GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK



*Helburua: Lurzoruaren plangintza eta kudeaketa zuzena eta orekatua, bizi-kalitatea hobetzeko eta etorkizuneko garapen txukunak aurreikusteko aukera emango duena.*

## Lurzoruaren erabilerak

### Lurzoruaren askotariko erabilerak

Naturak paisaia modelatu zuen, eta jarraian guk, pertsonok, paisaia gure premietara egokitu dugu, denborak aurrera egin ahala. Lehen kokalekuak orain milaka urte ezarri zituzten, baina gaur egungo kokalekuekin ez dute inolako zerikusirik. Biztanleria hazi ahala, espazio-premiak handitu dira, eta lurzoruaren erabilerak dibertsifikatu dira.

Izan ere, lurzoruek askotariko erabilerak eduki ditzakete, naturaren eta kokapenaren arabera. Bizkaian jende gehiena Bilbo Handian kontzentratzen da, 1.000.000 pertsona, gutxi gorabehera. Eskualde horretan, lurzoruari erabilera jakin batzuk ematen zaizkio, eta, logikoa denez, erabilera horiek ia-ia ez dute zerikusirik beste eremu batzuetan landa-lurzoruari ematen zaizkion erabilerekin.

EAEn lurzoruaren erabilera nagusiak honako hauek dira:

- Ingurumen-babesa
- Hainbat alorretako (aisia, kirola, osasuna, hezkuntza eta abar) ekipamenduak
- Lehen mailako baliabideen (nekazaritza, abereak, basoak, harrobiak eta abar) ustiapena
- Bizitegiak (herriguneak eta eraikin isolatuak)
- Merkataritza- eta industria-jarduerak
- Zerbitzuak eta azpiegiturak (garraioak, elektrizitatea, hondakinak eta abar)



Lurzorua giza jarduera gehienei eusteko gai da. Baliabide natural urri eta ez-berriztagarri horren kutsadura prebenitzeko, garrantzi handikoa da lurzorua proposatutako erabilerara egokitzea (4/2015 Legea. Lurzoruaren kutsadura. Euskadi).



*Ingurune fisikoak zeregin garrantzitsua betetzen du lurraldea antolatzeko lanetan, baliabide naturalen iturria eta giza jardueren euskarria izateaz gain, hondakinak biltzeko lana ere betetzen duelako*

### Etorkizunari begira


Azken urte hauetan gure lurraldean lehentasuna eman zaie lurralde "ez-artifiziala" kontserbatzeari, lehendik urbanizatutako lurzoruak berrerabiltzeari, barreiatu gabeko hiri-kokalekuak sortzeari, natura eta landaguneen kontserbazioari eta erabilera bigunak dituzten lurzoruak (basoa, hezeguneak, larreak, itsasertza, mendia eta abar) zaintzeari.



## Lurraldearen antolamendua

### Zer da lurraldearen antolamendua?

Erabilerak gune geografiko jakin batean planifikatzea eta banatzea da, ingurumen-, kultura-, gizarte- eta ekonomia-alderdiak kontuan hartuta.



*Bizkaiak 2.217 km<sup>2</sup> dauzka. Lurzoruko metro karratu bakoitza garrantzitsua da, eta eraginkortasunez balioetsi eta antolatu behar da*

### Lurraldearen antolamenduak izan behar du...

#### FUNTZIONALA

Tokiko premiei erantzun behar die.

#### GLOBALA

Sektore-politika guztiak integratu eta koordinatu behar ditu.

#### PARTEHARTZAILEA

Agente inplikatuena parte-hartzea ziurtatu behar du, herritarrena barne.

#### ETORKIZUNARI BEGIRA

Epe luzerako ekonomia-, ingurumen-, gizarte- eta kultura-jardunak barne.

Ulertu behar dugu lurraldea gure etxea dela

## Antolamenduaren eskalak

Lurraldea antolatzea prozesu luzea eta korapilatsua da, Europar Batasunaren jarraibide eta gomendioei jarraiki (**Lurraldearen Antolamenduko Europako Gutuna eta Europako Lurralde Estrategia**) zenbait lan-eskalatan gauzatzen dena. Ereku geografiko zabal batetik abiatzen gara, eta, pixkana-pixkana, hasierako ereku hori ereku txikiagotan banatzen da: autonomikoa, lurraldekoa edo probintziala, udalaz gaindikoa, udalarena eta abar.

***“Lurraldea zenbat eta txikiagoa izan, antolamendua orduan eta zehatzagoa izango da”***



### LURRALDEA GURE ETXEA DA...

Pentsa lurraldea etxe bat dela eta etxeko ereku guztiak (gelak, pasilloak, armairuak eta abar) gure ereku geografikoaren auzo, udalerrri, eskualde, probintzia eta autonomia-erkidegoak izan daitezkeela. Zulo bakoitza antolatu da haren erabilera eta funtzioen arabera. Nork ez luke etxe txukun bat herentzian hartuko? Lurraldearekin gauza bera gertatzen da, ONDARE EGOKIA UZTEKO, GURE LURRALDEAREN ARRAZOIZKO ERABILERA TXUKUNA EGIN BEHAR DUGU.



Lurraldearen  
antolamendu  
iraunkorrago bat  
jomugan





## Nola antolatzen dugu gure lurraldea?

### LURRALDEAREN ANTOLAMENDU FISIKORAKO OINARRIAK

#### LURRALDE ANTOLAMENDURAKO GIDALERROAK

Lurralde Antolamendurako Gidalerroek (LAG) Euskal Autonomia Erkidegoaren garapen orekatu eta koordinaturako jarraibide orokorrak ezartzen dituzte, ingurumena, baliabide naturalak, paisaia, industria, azpiegitura eta ekipamenduak eta ondare historiko eta kulturala kontuan hartuta.

Gidalerro horiek hainbat GIDALERRO PLANEN bitartez garatzen dira, eta plan horiek hainbat alorretako (geografia, administrazioa eta abar) eremuei heltzen diete.



#### LURRALDE ANTOLAMENDURAKO PLANAK



**Lurralde Plan Partzialek (LPP)** Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak garatzen dituzte eremu geografiko txikiagoetan. Azken horiek **ESKUALDE EGITURAK** dira, eta udalez gaindiko eremuak mugatzen dituzte, irizpide geografiko, ekonomiko eta sozialen arabera.

#### Bizkaiko eskualde-egiturak

EAEko lurraldea 15 eskualde-egituratan banatzen da, eta horietatik 6 Bizkaian daude. Udalerriek dagokien eskualde-egituraren lurralde-plan partzialen xedapenetara egokitu behar dituzte hirigintza-planak.



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia

**Lurralde Plan Sektorialek (LPS)**, berriz, lurraldearen hainbat eremu sektorialetan garatzen dituzte Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, hau da, hezeguneetan, lur gaineko uretan, itsasbazterrean, komunikazioetan (errepideak, trenbide-sarea, bizikleta-bideak, garraioa, portuak...), energia eolikoan, garraioan, jarduera ekonomiko eta ekipamenduetan...



## GERO, UDALERRI BAKOITZEAN...



### Udal-antolamendua

Udal guztiek zehatz-mehatz zehaztu behar dituzte beren udalerriko lurzorua erabilera eta aprobetxamendua, eragiten dien indarreko legeria osoari jarraiki (maila handiagoko plan guztien — Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, Lurralde Plan Partzialak... — zehaztapenak, estatuko legeak, autonomia-erkidegokoak eta abar).

*“Udalaren antolamenduak eta plangintzak bat etorri behar dute ingurumenaren babesarekin, naturaren kontserbazioarekin, eta paisaiaren, elementu naturalen eta kultura-ondarearen defentsarekin”*

## UDAL LURZORUAREN SAILKAPENA

### HIRILURZORUA (HL)

Espacio del municipio ocupado por zonas ya edificadas o urbanizadas.


### URBANIZAGARRIA (Lurb)

Espacio reservado para ampliar la trama urbana (residencial, industrial...).

### URBANIZAEZINA (LUE)

Parte del territorio municipal, en la que se incluye el espacio periurbano y natural del municipio, así como los núcleos rurales y otros asentamientos diseminados.

## Udal-antolamenduari gainbegiratu bat...



- Egoitzarako. Hiri lurzorua
- Egoitzarako. Urbanizagarria
- Egoitzarako. Urbanizaezina
- Urbanizaezina. Babes berezia
- Urbanizaezina. Lur gaineko uren babesa
- Urbanizaezina. Nekazaritza eta abeltzaintza



- Urbanizaezina. Basoa
- Garraio eta komunikabideak. Bideak
- Gune libreak
- Ekipamenduak





"Hiri Antolamenduko Plan Orokorra espekulazioa galarazi behar du eta pertsonen bizikaltatea hobetzea bilatu, etxebizitza duinen, azpiegitura hobeen eta zerbitzu kolektiboen bitartez..."

## Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO)

Udalerrirako nahi den hirigintza-eredua eratzeko oinarritzko araudia da, eta udal-espazioa egituratzen du araudian jasotako lurzoruen sailkapen orokorra oinarritzat hartuta (urbanizagarria, hirikoa, urbanizaezina), lurzoru bakoitzak zein erabilera izan ditzakeen eta zein ez adierazita eta horretarako baldintzak zehaztuta.

### PLAN BEREZIAK

Eremu jakin baten erabilera zehatzago definitzeko, sektore bat birgaitzeko eta abar, plan espezifikoak egiten dira.

**PERI** = Hiriko lurzoruan Barne Eraberritzeko Plan Berezia.

**PEPC** = Babesteko eta Zaintzeko Plan Berezia (eraikinak, interes naturaleko eremuak eta abar).

## UDALPLAN, udal-hirigintza zure eskura

EAE osatzen duten 250 udalerrien plangintzaren eremu guztien egoera kontsulta dezakegu bertan, honako hauek guztiak bereizita: bizitegi-erabilerarako lurzorua eta jarduera ekonomikoetarako lurzorua, eraikitzeko gaitasuna zehaztuta; sistema orokorren lurzoruak eta lurzoru urbanizaezinak. Datuak adierazgarriak dira:



	ZEBERIO	BILBAO
<b>Biztanleria</b>	1066 Biz.	347769 Biz.
<b>Azalera</b>	4764 Ha	4059 Ha
<b>Kalifikazio orokorra</b>		
• Bizitegia	% 0,3	% 29,64
• Jarduera ekonomikoak	% 0,08	% 2,03
• Sistema orokorra	% 0,7 %	% 30,78
• Urbanizaezina	% 99,12	% 37,55



Iturria: <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-udalplan/es/aa33aWAR/interfacesJSP/index.jsp>

## NATURAGUNE BABESTUEN ANTOLAMENDUA ETA KUDEAKETA

Naturagune babestu bakoitzak (parke naturala, biosferaren erreserba, biotopo babestua eta abar) bere antolamendu- eta kudeaketa-planak ditu. Plan horien helburua bertako balio naturalak zaintzea da, eta, aldi berean, bertako herrien garapena sustatzea, erabilera edo aprobetxamendu iraunkorra ahalbidetzeko.

### BNAP

Baliabide Naturalen Antolamendu Plana

Naturagune Babestuaren babesa, kontserbazioa, hobekuntza eta arrazoizko erabilera ziurtatzeko behar diren neurriak ezartzen ditu.

### EKPZ

Erabilera eta Kudeaketa Plan Zuzentzailea

BNAP planean agindutako baliabideen erabilera eta kudeaketa zehazten du.



**Zer egin dezaket hirigintzako eta lurralde-antolamenduko planetan parte hartzeko?**


Lurraldea antolatzeko prozesu guztietan jendaurreko informaziorako aldi bat dago, dokumentuak kontsultatu eta gure ekarpenak aurkeztu ahal izateko aproposa.

## PARTE HARTU

2014. urtean Mañariak herri-kontsulta  
egin zuen bere hirigintzaren etorkizuna  
erabakitzeko.



Dokumentu teknikoak idatzi baino lehen gero eta ohikoagoa da kontsultak egitea, herritarren kezka, itxaropen, interes eta proposamenak jasotzeko. Aprobetxatu aukera eta parte hartu!





## i

### Gehiago jakiteko

#### Informazio interesgarria

- Lurralde Antolamenduko Europako Gutuna.
- Europako lurralde-estrategia.
- Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG). EJ-GV.
- Lurralde Plan Partzialak (LPP). EJ-GV.
- Lurralde Plan Sektorialak (LPS). EJ-GV.
- Bizkaiko Lurralde Planeamendua.
- Bizkaiko Udal Plangintza.
- Lurralde eta Hirigintza Plangintza. EJ-GV.
- Eudel.
- Udalsarea21-Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea.
- Geoeuskadi.
- Udalplan.
- Hirigintza-planeamenduak iraunkortasun-irizpidez idazteko eskuliburua.

#### Araudia

- Hirigintzako eta Lurralde Antolamenduko araudia. Euskadiko hirigintza-kodea.
- 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzorua erabilerak prebenitu eta zuzentzekoa.

*"Hiriko eta hiri-  
inguruetako  
berdeguneek funtsezko  
zeregina betetzen dute  
pertsonek ongizatean  
eta bizi-kalitatean"*

**Osasunaren Mundu Erakundearen arabera**, hiriekin gutxienez berdegunearen 10-15 metro karratu eduki beharko lukete biztanle bakoitzeko.

